

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2013ko urtarrilaren 9a. IX. urtea. 2.461. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Epe luzerako «plan estrategikoa» egin behar dela diote sindikatu nagusiek

Tolosaldeko LABeko eta ELAko ordezkariak, Mari Mujikak eta Egoitz Iturbek, bigarren sektorearen hausnarketa egiterakoan etorkizuna ilun ikusten dute

Eskualdeko enplegu bulegoaren arabera, azken lau urte hauetan bertan izena eman dutenen kopurua bikoiztu egin da: 2008an 1.587 pertsona ziren, eta orain 3.133 dira **o5**

Bidegoiango Correos ez ixteko 100 sinaduratik gora bildu dituzte

Correos enpresak hartutako erabakiaren aurka, udalak sinadura bilketa hasi du; sinatu ez dutenek ostirala bitartean izango dute aukera **o6**

Aurrekontuak aztertzeko herri batzarra egingo dute, Areson

Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu urteko lehen batzarrera; etzi, 20:00etan izango da udaletxean **o7**

25. urteurrena prestatzen ari da TAKE **o3**



→ **Merkealdiaren zain.** Tolosako dendari gehienek aurreko urteetan baino kanpaina eskasagoa egin dute Eguberri hauetan. Astelehenean hasi ziren merkealdiarekin eta lehen eguneko balantze ona egin dute dendari gehienek. Gabonetako kanpaina «eskasari» merkealdiarekin eman nahi diote buelta. Saltokietako erakusleioetan %20, %30, %40 eta %50eko beherapenen kartelak ikus daitezke, eta otsaila amaiera bitarte horrela jarraituko dute. **o2**

‘Amasa-Villabonak ziztada Berriari’ ekimena antolatu dute herritarrek

Berria Komunikazio Taldeari laguntza eman nahi diote; Euskarari ados! lantaldeak hitzaldia, erakusketa eta jaialdia prestatu ditu **o4**



Herriko hainbat eragilek aurkeztu zuten, ekimena, atzo. A. MAZ

Ekuadorko indigenen ezagutzaz eta eraldatzeaz ariko dira

Tolosako Bidaiariari Txokoan gaiari buruzko liburua aurkeztuko dute gaur; Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoa ariko da hizlari **o3**



la denda gehienetan, pasa den astelehenean hasi zen, otsaila bukaerara arte luzatuko den merkealdia. I. URKIZU

Gabonetako kanpaina merkealdiarekin hobetzea espero dute dendariak

Herenegun hasi ziren, denda gehienetan, beherapenekin; lehen egunaren balantze ona egin dute

Itzea Urkizu Tolosa

Krisia dela eta ez dela, Tolosako dendari gehienek aurreko urteetan baino kanpaina eskasagoa egin dute eguberrietan, eta beherapenek hori guztia berreskuratzen lagunduko dietelakoan daude. Erakusleioetan %20, %30, %40 eta %50eko beherapenen kartelak ikusgai daude jada, eta otsaila bukaerara bitarte halaxe jarraituko dute.

Merkealdia gabonetako oporraldiaren ondoren etorri ohi da urtero; aurtan, ordea, Espainiako Gobernuaren lege berri bat dela

eta, merkatarik bakoitzak bere dendako beherapenak nahi dituen garaian jartzeko eskumena izan du. Tolosan, zenbait dendetan gabonetako deskontu eta merkealdien kartelak ikusi ahal izan diren arren, «denda gehienek ohiko merkealdiaren garaia errespetatu egin dute», Tolosa & Co elkarterko Juanjo Ruizen arabera. «Madrildik inposatu dituguten zerbaitekin da lege berria, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak ezin baitute ezer egin, neurri horren aurrean. Lege berriaren arabera, nahi duenak nahi duenean jar dezake merkealdia», azaldu du Ruizek.

Horrela, beraz, datorren otsaila amaierara bitarte, beherapen, deskontu eta mauka onenez gozatu ahal izango da dendetan: «Lehengoa legearen arabera, martxoan hasierara arte mantentzeko merkealdia, gehienez ere. Norma-

lean, ordea, jendeak otsaila amaitu bitarte mantentzen dituen beherapenak, gero denboraldi berriko arropa jartzeko hasten baitira», azaldu du Ruizek.

Merkealdiaren esperoan

Balorazio orokorregirik egiteko astirik ez dute izan, oraindik, merkatariek. Denda bakoitzak bere erara bizi izan du eguberrietako kanpaina, baina oro har, salmenten jaitziera azpimarratu du Tolosa & Co merkatarien elkarterak.

Mahe arropa dendako arduradunak, esaterako, gabonetako kanpaina nahiko ondo joan zaiola

azaldu du: «Ezin naiz kexatu, iazko moduan joan baitzaizkit gaurak. Egia da, iaz nabaritu zela beherakadaxo bat, baina tira, oro har, gabonetako kanpaina aurrera atera dugu».

Merkealdiaren lehen egunari dagokionez, ordea, «nahiko lasaia» izan zela azaldu du: «Errege eguneko opariak aldatzera etorri zen jendea, baina oraingoz, merkealdia bera motel samar hasi da. Aurrerantzean ere salmentak lasai joango direla uste dut egia esan; gaurtik aurrera, behar bada, indar pixka bat hartuko dute, eta asteburuan ere gorakada nabarituriko da, baina esan be-

zala, merkealdi lasaia izango dela uste dut».

Ez dute balorazio bera egin, ordea, Lara dendako arduradunek: «Krisia asko nabaritu dugu gabonetan, eta gainera, denda batzuek merkealdia eguberrietan hasia zuten jada; horrek eragin digu, eta jendea merkealdiaren zain egon da». Horrela beraz, lege berriaren eragina eta krisia bateratu zaizkiela uste dute Larako dendariak: «Opari oso gutxi bildu ditugu aurtan».

Astelehenean, ordea, sekulako salmentak izan zituzten Lara

Gabonetako kanpaina «eskas samarra» izan da, dendari gehienentzat

Merkealdia edozein garaitan jar daiteke, Espainiako Gobernuak onartutako legearekin

Oro har, merkealdiaren lehen egunaren balorazio ona egin dute dendariak

arropa dendan: «Lehen eguna izugarria izan da aurtan, geratu gabe ibili ginen astelehenean, historikoa izan zen guretzat. Jendea merkealdiaren zain zegoen, argi eta garbi».

Azkenik, Tolosa & Co merkatarien elkarterko Juanjo Ruizek ere, gabonetan krisia nabaritu dutela azpimarratu du: «Egia esan, orain arte ez dugu krisiaren zantzua handiegirik izan Tolosan, baina azken eguberrietan salmentak jaitzi dira pixka bat. Oso-oso orokorra izan da hau, gainera».

Merkealdiaren lehen egunaren balorazio ona egin du, gainera, Ruizek, Skukn Funk, Drum eta Kimetz dendei dagokienez: «Egun bakarra pasa da, eta ezin gara balorazioekin hasi, baina atzoko eguna nahiko ona izan zen egia esan».

• tolosa@hitza.info



%50a bitarteko beherapenen eskaintzak ikus daitezke Tolosako erakusleioetan. I. URKIZU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ekuadorko indigenen kultura hizpide izango da, gaur, Bidaiarien Txokoan

Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoak liburu bat aurkeztuko du Txuri Olo eta Koldo Azkunerekin batera

Itzea Urkizu Tolosa

Saberes ancestrales de Sucumbios izenburua duen liburua aurkezteko hitzaldia antolatuko dute, gaur, Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan. Ekuadorko indigenen kultura aniztasuna abiapuntu duen lanaz ariko dira, 20:00etatik aurrera, Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoa, Miren Txuri Olo antropologoa eta Koldo Azkune kazetaria.

LERA Mugarik Gabeko Antropologoen elkarteak aurrera eramandako egitasmo bat da liburua, eta Ekuadorko Sucumbios eskualdeko gobernuak finantzatu du. Funtsean, eskualde horretako kultura aniztasunaren balioa handitzea, eta antzinako kultur tradizioen adierazpenak sustatzea da helburua.

Fernandez de Larrinoak, Ollok eta Azkunek, zortzi hilabete igaro zituzten Ekuadoren, lan honetarako materiala biltzen, baina egiazki, Sucumbios eskualdeko



Liburua dibulgazio lana da, eta Sucumbioseko indigenen bizimodua islatzen du. HITZA

zenbait biztanlek idatzi dute lana. «Munduko gainerako biztanleek bertakoak nola ikusten dituzten adierazi nahi zuten, eta euren mundua nola ikusten duten ere bai», azaldu du Kepa Fernandez de Larrinoak.

Horrela, beraz, dibulgazio lana dela argitu du Alkizari bizi den antropologoak, eta interesa duen edonork irakur dezakeela: «Oso bisuala da, argazkiak bete». *Saberes ancestrales de Sucumbios* argi-

talpenean, Siekopai, Siona, A'i Kichwa, Shuar nahiz herrialde afro-ekuatorretako nazionalitate indigenen historia, izaera, janzkerak, ahoko tradizioak, populazioa, musika, artisautza, etxebizitza, ospakizunak, medikuntzarako botanika nahiz mundu espiritualak biltzen dira.

1997an hasitako bidean

LERA ikerketa 1997an sortu zen, mendiko paisajeen ikerketa-

rako zentro gisa; 2005ean, ordea, mendealdekoak ez diren komunitate indigenen ikerketari ekin zioten.

2009. urteaz geroztik, Lera ikerketa, Nafarroako Unibertsitate Publikoan antropologiaren ikerkuntzan aritzen den talde bat da

Besteak beste, komunitate indigenen nahiz landa komunitateen arazo eta egoerak aztertzen dituzte.

• tolosa@hitza.info

Materiala bildu nahi du TAKEk, elkartearen 25. urteurrena ospatzeko

I. Urkizu

Tolosako Adiskideok Kirol Elkarteak, TAKEk, 25 urte beteko ditu aurretik, eta urteurrenaren harira antolatuko dituzten ospakizunetarako materiala bildu nahi dute.

Tolosako saskibaloiarekin zerikusia izan dezaketen herritar guztiei egin diete deia, material eske: «Argazkiak, bideoak, kronikak, kirol ekipazioak... Edozein material ekar daiteke». Ardura-dunek, gainera, utzitako material guztia, ospakizuna amaitzean beren jabeen itzuliko dietela argitu dute.

Horrela beraz, TAKEren 25. urteurrenaren materiala utziz lagundu nahi dutenek, elkarteak zuzendaritzarekin harremanetan jarri beharko dute, eta bestela, takesb@takesb.com helbide elektronikora idatzi.

Baskonia ikustera

Datorren urtarrilaren 24an, Caja Laboral Baskoniak FC Barcelonaren aurka jokatu du partida, Euroleague txapelketaren barruan, Gasteizko Buesa Arenan. Partida 20:30ean hasiko da, eta oraingoan, 55 eserleku soilik daude autobusean. Horrela beraz, izena azkarren eman eta garaiz ordaintzen dutenek lehentasuna izango dute. takesb@takesb.com helbidea idatzi beharko da horretarako, eta ordainketa taldeko entreatzaileei egin beharko zaie. 1998an edo beranduago jaiotakoek 15 euro ordaindu beharko dute, eta 1997an edo lehenago jaiotakoek, berriz, 20 euro.

• tolosa@hitza.info

Kepa Fernandez de Larrinoa • Antropologoa

«Indigenak bizimodua planteatzeko beste modu batzuk sortzen ari dira»

I. Urkizu

LERA Mugarik Gabeko Antropologoen elkarteak kideetako bat da Kepa Fernandez de Larrinoa, eta gaur, liburua aurkezteaz gain, Ekuadorko herrialde indigenen eraldatzeaz ariko dira.

Nondik nora joango da gaurko aurkezpena?

Gaur egungo Ekuadorko Amazoniako alderdiaren berri eman nahi dugu. Mintzaldian, batez ere, diapositiben bidez erakutsiko dugu bertako egoera.

Zein erakunde dago ekimenaren atzean?

LERA Mugarik Gabeko Antropologoen elkarteak Tolosaldean finantzatu dago, eta bertako kideak gara. Lagun gutxi garen arren, bizpahiru proiektu sendo egin ditugu jada Amazonian.

Zein da proiektu hauen oinarria?

Kultur egitasmoak izan dira, eta besteak beste, bertako taldeei laguntzeko eginkor egitasmoak izan dira. Lehendabizikoa Kofan

indigenekin izan zen; irratsaio bat prestatu genuen eurenkin. Saioren prestakuntzak, zein baliabide teknologiko erabil daitezkeen, eta abar erakusten genien. Bi urtez prestakuntza lanetan arituginen, eta 20 cofan indigena gaztekin parte hartu zuten. Geroztik, programa bat egiten dute irrati bidez.

Zuen bigarren egitasmoaz ariko zarete gaur, ezta?

Bai. Kontua da, Sucumbios eskualdeko gobernuak baduela bulego indigena bat; 10 indigena aritzen dira bertan, kontratatuta. 2007an langile hauekin hasi ginen, kultura artxibo bat nola egin den ikasiz, eta ikus-entzunezko dokumentuak nola sortu, prestatu eta zabaltzen diren ezagutzuz. Jardun honetan zortzi hilabete inguruz ibili ginen Txuri Olo, Koldo Azkune eta hirurok, eta helburua zera izan zen, bulego hartako indigenek berek entziklopedia bat prestatzea, euren ikuspegitik.

Zein da entziklopediaren edukia?

Beren ezagutzak eta nortasuna, alde batetik. Bestalde, kanpoko gizarteak euren duen iritzia ere bildu nahi zuten, eta euren burua nola ikusten duten ere bai. Liburua, beraz, hortik etorri da; 10 lagunek talde horren prestakuntzaren lekukoa beste talde batekin hartu zuen, eta hango gobernuak eta erakundeek diruz lagundu dute argitalpena.

Antzinako kulturei garrantzia handia ematen diezue. Nolakoak dira Ekuadorko kultura indigenak?

Guztia asko aldatu da han azken urteotan. Kontuan izan behar da, kolonialismoak eragin handia izan duela bertan, eta azken 30 urteotan are handiagoa gainera. Eskualde horretan, Sucumbiosen, petrolioa nagusi dela, eta beraz, petrolioaren eragina nabarmenki somatu dutela han, bizimodua eta portaerak aldatzera arte.

Gaur, beraz, liburuaz haratago ere joango zarete.

Bai. Liburua, neurri batean, Su-

cumbioseko ezagutza tradizionalaz ari da. Indigenek, horrez gain, egungo ezagutzak ere txertatu nahi zituzten lanean; baina ezagutzak, ingurumen aldakor horretan. Eta ingurumena bortitza da han, petrolioa bortitza delako hango bizimoduetan. Honegatik guztiagatik, indigenak bizimodua planteatzeko beste modu batzuk sortzen ari dira azkenaldian.

Garai berrietara egokitu behar izan dute?

Erresistentziarako kulturak abian daude, eta era berean kultura berriak sortzen dira. Estatuak dute, probintziak daude, udalak ere bai... Baina orain dela gutxi arte hango indigenak ehiztariak eta fruitu biltzaileak izan dira, eta bizimodu horrek zenbait jarraibide eta kultur emari berezi ekarri dizkie. Tentsioa sortu da, beraz, tradizioaren eta petrolioak baldintzatutako egungo bizimoduaren artean. Indigenek beren izaerari eutsi nahi diote gizarte garaikide honetan.

→ Laburrak

Jokin Azkue euskararen promozio zuzendaria

POLITIKA › Jokin Azkuek, Tolosako EAJko zinegotziak, Eusko Jaurlaritzako euskararen promozio zuzendari kargua hartuko du datozten egunotan. PSE-EE agintaldian egon den azken legealdian Begoña Muruaga aritu da postu horretan.

Urtarrileko kantu jirako entsegua bihar

KULTURA › Urtarrileko kantu jira hilaren 26an izango da, inauterietako abestiekina, eta lehen entsegua bihar izango da, 20:00etan, musika eskolan.

‘Berria’ri ziztada eman nahi diote herritarrek elkarlanean

Berria Komunikazio Taldeari laguntza eman nahi diete, hitzaldia, erakusketa eta jaialdien bidez

Asier Imaz Amasa-Villabona

Euskararen ados! lantaldeak, *Amasa-Villabonak ziztada Berriari* ekimena aurkeztu zuen atzo, Villabonako udaletxean. Herriko eragile eta norbanakoez, elkarlanean, egitarau oparora antolatatu dute ondorengo egunetarako. Helburua: *Berriaren* egoera ekonomikoa gertutik ezagutaraztea, eta euskal komunikabidea diruz laguntzea; *ziztada* ematea.

Ekimena aurkezteko garaian, krisiak hedabideetan izan duen eragina azpimarratu zuten Euskararen ados! taldeko kideek: «Zer esanik ez euskarazko komunikabideetan. Euskal Herrian ez dago euskara hutsean informazioa helarazten duen komunikabide asko. Egiaz, Berria Komunikazio Taldea da bakarrenetakoa. Krisiak eta diru laguntzen jaitziera nabarmenak, Berria komunitatea astindu du».

Astinaldiari aurre egiteko, he-

↓ Egitaraua


GAUR, URTARRILAK 9

- **Erakusketa, hilaren 9tik 12ra.** Gurea antzokian 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 12an, 11:00etatik 13:00etara.
- **Martxelo Otamendiren hitzaldia.** Subijana etxean, Mintzolan, 19:00etan.

URTARRILAK 11, OSTIRALA

- **‘Berria’ren aldeko jaialdia.** Amasa-Villabonako hainbat eragilek jaialdia egingo dute Gurea antzokian. Bi emanaldi izango dira. Lehena, 19:30ean eta bigarrena, 22:30ean. Sarrera 5 euro izango dira, eta biltzen den dirua *Berriarentzat* bideratuko da. Eresergi abesbatza, Oinkari dantza taldea, Lain musika taldea, bertsolariak... ariko dira bertan.

rritarren ekarpenak beharrezkoak direla uste dute billabonatarrek: Norbanakoen ziztaden bidez, Berria Lagun egingez, adibidez, edota elkarlanean antolatutako herri ziztadetan parte hartuz.



‘Amasa-Villabonak ziztada Berriari’ ekimena aurkeztu zuten atzo goizean, herriko hainbat eragilek. A. IMAZ

Maite Arregi • Euskararen ados! mahaiko kidea

«Euskararen normalizazioa sustatzea da gure lana»

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonak ziztada Berriari ekimena Euskararen ados! lan mahaiaik sustatu du, herriko eragileen laguntzarekin. Maite Arregi lan taldeko kidea da. Billabonatarrez gain, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritar guztiak gonbidatu ditu ondorengo egunetako ekitaldietara.

Zer da Amasa-Villabonak osatu duzun Euskararen ados! lan mahaia?

Udal talde berria sartu zenean, herrian lan mahaiaik osatu behar zirela pentsatu zuten; ez bakarrik udal mailako eragileen artean, baita herri mailako gaien inguruan ere. Hortik sortu zen Euskararen ados! lan mahaia. Herri mailako hainbat lan egitea dagokigu, beti ere, euskara ardatz hartuta.

Udalak parte hartzen al du lan mahaian honetan?

Bai, baina kide bat gehiago bezala; mahaian eragile bat gehiago da.

Euskara teknikari bezala lan egiten duzu udaletxean, eta horrez gain, batzar hauetan parte hartzen duzu.

Udal ordezkarari moduan joaten naiz, Nora Urbizu zinegotziarekin batera.

Zeintzuk dira beste eragile edo partaideak?

Euskal Herrian Euskaraz, ikastetxeetako ordezkariek, Larramendi Kultur Bazkunako kideak... eta hauez gain, norbanakoez ere joateko aukera izaten dute, eta jotzen dira gainera.

Zeintzuk dira Euskararen ados! lan mahaiairen helburuak?



A. IMAZ

Euskararen erabilera zabaltzeko eta sustatzeko dauden arazoak detektatzen ditugu, hasteko. Ondoren, nolabaiteko irtenbideak jartzen ditugu mahai gainean, plangintzak martxan jarri ahal izateko. Helburu nagusia, Amasa-Villabonak euskararen normalizazioa sustatzea da. **‘Berria’ egunkariari ziztada emateko ideia nondik sortu ziztaizuen?** Berria komunitateko kideak herri ibili dira egunkariaren egoera azaltzen. Gurekin elkartu ondoren, zerbait egin beharra zegoela ikusi genuen. Alde batetik, ziztadaren bidez Berria Lagunak lortu nahi zituzten, eta mahaiaik lan hori aurrera atera behar zuela ikusi zuten. Bestalde, ekitaldi batzuk antolatzeko aukera ikusi genuen, eta horretan hasi ginen lanean. Emaitza antolatu dugun

egitaraua izan da: hitzaldia, erakusketa eta jaialdia.

Zergatik erabaki zenuten ‘Berria’ri laguntzea?

Euskararen normalizazioaren alde, momentu honetan, *Berriak* izugarriko lana egiten duela iruditzen zaigu. Gure lana hori sustatzea denez, laguntza emateko gai ginelarik ikusi genuen.

Herriko eragileen laguntzaz osatu duzue jaialdia. Nolako erantzuna jaso zenuten ideiarekin hurbildu zinetenean?

Oso ona. Inongo arazorik ez zuten jarri, alderantziz, gogo handiz hartu zuten ziztadaren ideia, eta ekarpen bat baino gehiago egin zituzten. Bilera bat baino gehiago egin ditugu eurekin, eta ez dugu inongo kezarik, alderantziz, esker oneko hitzak besterik. Oso gustura gaude alde horretatik.



Tolosalako Usabal industriguneko bi lantegi. A. IMAZ

«Zein da plan estrategikoa?»

LABen eta ELAren eskualdeko ordezkariek, Mari Mujikak eta Egoitz Iturbek, bigarren sektorearen inguruko hausnarketa egin dute

Asier Imaz

Tolosaldeko bi sindikatu nagusien ordezkariek ados daude: «Kezkaturik egoteko arrazoi handiak daude; ikusi besterik ez dago Tolosan bakarrik zenbat enpresa itxi diren azken aldian». Mari Mujika LAB sindikatuko ordezkariek eskualdeko ekonomiaren etorkizuna ilun ikusten du, baina argi dauka zer egin behar den hori ekiditeko. Egoitz Iturbek ELAren ordezkariek, miseria ikusiko dugula dio, baina honek ere, argi dauka zer egin behar den.

Tolosaldeko langile gehien biltzen dituzten sindikatuetak ordezkariek ados daude: «Behingoz, denon artean, epe luzearako plan estrategiko bat egin beharra daukagu eskualdean».

Langabezia datuak?

Tolosalako enplegu bulegoko datuen arabera, azken lau urte hauetan lanik gabe dauden herri-tarren kopurua bikoiztu egin da.

Hau da, 2008an, 1.587 lagunek eman zuten enplegu bulegoan izena, eta 2012ko abenduan, zerrenda horretan, 3.133 lagun zeuden. Horri, noski, izena ematen ez duten langabetuak gehitu behar zaizkio. Langabeziaren datu zehatzak lortzea ez dela erraza diote Lanbidetik, baita LABetik ere: «Nola liteke langabetu kopurua kontrolatuko duen erakunde bakar bat ez egotea? Lotsagarria da».

Langabezia neurtzeko erabiltzen diren iturriak SEPE, EPA eta Eustat dira. Elkarrekin adostasunik ez duten datuak kaleratzen dituzte.

«Larrialdi egoera»

Agintariak «txotxongilo hutsak» dira Egoitz Iturberekin, eta euren politika ekonomikoa «fartsa» bat da: «Botere ekonomikoak agintzen duena besterik ez dute egiten. Lan erreformekin hasi zirenean, ELAtik argi esaten genuen murrizketak besterik ez zi-

tuztela ekarriko. Zer gertatu da? Murrizketak ezarri dituztela bata bestearen atzetik. Ongizate gizartea suntsitzea beste helbururik ez dute, eta hori garbi gelditu da azken lau urte hauetan. Adar jotze bat da. Beraiek sortu dute egoera hau, eta ondorioak langileen eta gizartearen bizkar jarri dituzte. Hondamendi batetara garamatzate».

Lan erreformak, kaleratzeak merketzeko egin dituztela dio ELAren ordezkariek, «ez ekonomia berpizteko, behin eta berriz esaten duten bezala». Eskualdean hori gero eta nabarmenagoa dela dio Iturbek, eta miseria, geroz eta handiagoa. Horren aurrean, Tolosaldeari dagokion plan industrialia zein den galdetzen du: «Zer proposatzen dute?».

ELAren ordezkariekin galdera horretara, LABen ordezkariek langabezia datuak eskuetan dituela iristen da, zuzenean: «Datuak izugarriak dira, baina oraindik eta okerragoa da aurrera begiratzen denean. Eskualdea hilda agertzen da; ez dago sektore berririk, ez dago apustu berririk, eta ez dago proiektu berririk». Adierazitako aurreikuspen faltaren ondorioak neurtu nahian, Mujikak, ondo-

rengo kezka kaleratzen du: «Egun, Tolosaldeko enpresa nagusienak multinazionalak dira. Bihar, hemendik joatea erabakitzen baldin badute, zer gertatzen da hemen? Hauek botere gunea hemendik urrun dute, eta ez dute eskualde, Gipuzkoa edo Euskal Herri ikuspegirik. Izugarriko laguntzak eman zaizkie, eta orain, joaten ari diren honetan, nola berreskuratu laguntza horiek?».

Mari Mujikak metalgintzarekin gertatua jartzen du adibide moduan: «Duela hogeitau urte bost enpresa indartsu zeuden eskualdean, elkarrekin kompetentzian. Sektore estrategiko bat sortu behar zela aldarrikatu genuen behin eta berriz, elkarrekin ari-tzeko, bestela desagertu egingo zirela. Hori ez zela gertatuko esaten ziguten, eta zer gertatu da? Banaka-banaka desagertzen joan direla; bakararra gelditzen da».

LABen eta ELAren ordezkariek ados daude: «Plangintza bat behar da». Egoitz Iturbek, horretarako, lehenik eta behin interes politikoa behar dela dio: «Gero, zein enplegu mota ekarri nahi den erabaki behar da. Sindikatuen ustez, kalitatezko enplegua sortu behar da. Administrazioak eta enpresariak ez dakit zer esango duten. Ondoren, jendea formatu behar duzu, hor ere zer esana egongo litzateke».

Mari Mujikak eskualdeko udal-lerriak aipatzen ditu mahai horren sustatzaile gisa. Sindikatuak, enpresariak, Eusko Jaurlaritza, SPRI, Gipuzkoako Foru Aldundia... egotea nahiko luke, eskualdearen etorkizunaz hitz egiteko. Lehiberitik kimuak atera daitezkeela dio Mujikak, baina horiek martxan jartzeko denbora beharko dela: «Jadanik, nahiko berandu gabilta».



harpidedunak hitza



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Urtarrilak 12 • Larunbata
19:15
Donostiako Irunben

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket Club

saskibaloia partida



sarrerak

100 sinaduratik gora, Bidegoiango Correosen alde

Zerbitzua kentzen badute 14 bat kilometro egin beharko dituzte postariaren lehen deia jasotzen ez dutenek

Rebeka Calvo Bidegoian

Jada 100 herritarretik gora sinatu dute Correos enpresa publikoak Bidegoiango udaletxean zuen bulegoa ez ixteko.

Udaleko arduradunek pasa den larunbatean mahai bat jarri zuten frontoian sinadurak biltzeko eta jende asko hurbildu zen Correosek hartutako erabakiaren kontra egiteko. Larunbatean sinatu ez zutenek, hala ere, aukera izan-

go dute aste honetan egiteko, horretarako udaletxeko idazkaritzara jo beharko dute ostirala bitarte; gaur arratsaldean sinatu ahal da. Biltzen dituzten sinadura guztiak Gipuzkoako Batzar Nagusietara eramango dituzte.

Azpeitiraino

Bidegoiango 530 biztanleek 14 bat kilometro egin beharko dituzte Azpeitiraino, Correosek hartutako erabakia berresten bada. Udaletxeko bulegoa 10 urtetik gora doa irekita eta udaleko arduradunek azaldu dutenez, herritarrek oso gustura egon dira zerbitzuarekin.

Pasa den abenduaren 1etik, ordea, bulegoa itxita dago, eta ondorioz, herritarrek aurrerantzean

gutunak jasoko dituzte euren postontzietan, baina gutun zertifikatuak, fardel edo paketeak zein antzeko zerbitzuak jasotzeko arazoak izango dituzte. Izan ere, postariak egin ohi duten lehen saiakera eta gero, etxeetan inor topatzen ez badute, Azpeitiako Correosera joan beharko dira bidegoiandarrak.

Udalak enpresaren asmoaren berri izan bezain pronto honen kontra azaldu eta ahalegin guztiak egin zituen bulegoa ez ixteko, baina ez du lortu.

Udaleko arduradunek azaldu dutenez, ordea, ez dute etsiko eta, «egoera honek herritarrei sortuko liekeen arazoez eta eragozpeenez jabetuta» ahal duen guztia egingo duela esan dute.



Larunbatean pilotalekuan jarri zuten sinadurak biltzeko mahaiak. HITZA

Tolosako txosna batzordeak pegatina lehiaketa antolatu du

Karroza lehiaketan izen ematea zabalik dago; kultura sailak emango du Ferialekua erabiltzeko baimena

R. C. Tolosa

Otsailaren 7a, Ostegun Gizen, geroz eta gertuago dago, eta urteroko moduan, tolosarrak inauterietara begira jartzen dira Eguberriak bukatuta. Festako erdigunean kokatzen diren txosnetan ere hasi dira lanean, eta txosna batzordeak pegatina lehiaketa bat antolatu du.

Herritar guztiei egin diete dei parte hartzeko: «Zuek egindako pegatina inauterietako ikur izatea nahi baduzue, badakizue, parte hartu».

Aurkezten diren lanek Tolosarekin eta txosnekin zerikusia izan behar dute, eta paper euskarrian nahiz euskarri digitalean egindakoak izan daitezke. Paper euskarria bada, sorkuntzak 10 zentimetro x 10 zentrimetro neurrikoa



Pixkana-pixkana inauterietarako prestatzen ari da Tolosa. I. URKIZU

izan behar dira gehenez, eta euskarri digitalean badira, *.jpg* formatuan aurkeztu behar dira.

Lanak aurkezteko epea hilaren 27an bukatuko da eta tolosakotxosnak@gmail.com helbidera bidali behar dira, informazio gehiago ere helbide horretan lortu daitekeelarik.

Epaimahaia txosna batzordeko kideek osatuko dute eta saria inauterietan egin beharreko lau lagunentzako afaria izango da.

Festa batzordeko kideak, beren aldetik, orain hilabete batzuk hasi ziren lanean jaiak antolatzen eta jada iritsi da ere, konpartsa eta karreroen lehiaketan izena emateko

garaia. Bi modu daude izena emateko: kultur etxera joanda edo *on line*, www.tolosakoudala.net helbidera sartuta. Epea otsailaren lehen bukatuko da 13:00etan. Izena ematerakoan talde bakoitzak zerbaki bat jasoko du, eta zerbaki hori eraman beharko dute bistan, emanaldian zehar.

Izan ere, aurtengo aldatetako bat horixe da, lehiaketan parte hartzeko, hau da, dieta edo dirulaguntzak jasotzeko konpartsa edo karrozkek emanaldi bat eskaini beharko dutela, eta ez soilik plataforma egin eta kalean ibili.

Parte hartu nahi dutenek kontutan hartu beharko dute, besteak beste, debekatuta dagoela kotoxeak erabiltzea konpartsak egiteko, ezin dela publikizaterik egin, eta udalak ferialekuaren kontrola eramango duela.

Ferialekua erabiltzeko ere arau berri bat jarri dute: kultura sailaren baimena beharko da bertan lan egiteko.

Erabiltzaileei bere kokapena zein den adieraziko diete eta karroza eta konpartsa handienek lehenetsuna edukiko dute. Ferialekuaren kontrola udalak emango du, eta arauak ez baldin badira betetzen, bi aldiz ohartarazi ondoren, udalak zigorrak jartzeko eskumena du.

→ Laburrak

Mus Txapelketako kanporaketa, ostiralean

IKAZTEGIETA › Ostiralean, hilak 11, Euskal Herriko V. Mus Txapelketako kanporaketa izango da Ikaztegiatan. Ostatuan izango dira partidak, eta 22:00etan irekiko dute izen ematea. 22:30ean hasiko dira jokoen. Irabazleek bi lagunentzako afaria izango dute saritzat. Finala martxoaren 9an izango da Agurainen (Araba), eta txapelduen txapela, garaikurra, 3.000 euro eta Karibera lau lagunentzako bidaiak irabaziko dute.

Herrigintza elkarteak zuzendaritza aldatuko du

IKAZTEGIETA › Herrigintza elkarteak urtea hastearik batera zuzendaritza aldatuko du. Horretarako batzarra egingo dute hilaren 18an 20:30ean, elkartean bertan. Batzarrean urteko diru kontuen balantzea eta bazkide berrien zein bajen erreposoa egingo dituzte eta zuzendaritza aldatuko dute. Era berean, bazkide bakoitzaren kezka, galdera edo iradokizunak eztabaidatuko dituzte.

Egutegi fiskaleko datak argitaratu ditu udalak

ALBIZTUR › Albizturgo Udalak erabaki du jada, zergak noiz ordaindu beharko diren. Uraren tasa uztailearen 7tik irailaren 7ra ordaindu ahal izango da, ibilgai-luen zerga apirilaren 15etik ekainaren 17ra, zaborraren uztailearen 2tik 31ra, ondasun higiezinena maiatzaren 15etik ekainaren 30era eta jarduerak ekonomikoena urriaren 1etik azaroaren 10era.

ko egutegia

Zatoz HITZAra, 2013ko mahai egutegiaren bila!

TOLOSALDEKO hitza[®] ETA LEITZALDEKO

tegia2013

Irudia ◦ Ibarra/Tolosa**MERKATARIEK SARIAK BANATU DITUZTE**

Ibarrako Merkatarri elkarteak hainbat ekimen bultzatu ditu igaro berri diren Eguberrietan. Horien artean, 150 euroko lau txekeren zozketa. Atzo — irudian — atera zituzten lau zenbaki sarituak: 2.744 (Zubiaurre janari denda), 9.413 (Kiribil), 11.858 (Erre Berri) eta 10.321 (Jon Barriola harategia). Irabazleek 3 hilabeteko epea dute saria jasotzeko.

Bestalde, Tolosako Merkatarri elkarteak ere egin du Eguberrietako zozketa. 171.192 (Bitxilore), 7.711 (Altuna opariak) eta 39.219 (Solana 4) izan dira 1.000 euroko txekia irabazi duten zenbakiak. Tolosa&Co merkatarri elkartearen bulegora edo txartela jaso zuten dendara joan behar dute sarituek, hilaren 22a baino lehen.

Irudia ◦ Leaburu-Txarama**SARIA EGUZKITOKI ETXERA**

Leaburu-Txaramako Udalak beste hainbat herrietan egiten duten moduan, Eguberrietan saskia zozketatu du. Herriko etxe guztietan hainbat zenbaki banatu zituen, eta urtarrilaren 2ko Oneren zozketan erabaki da nor den irabazlea, azken lau zenbakiak kontuan hartuta. Bada, Txaramako Eguzkitoki etxeak jaso du saria. Bertako Itziar Zubelzuri banatu berri dio saskia Luisa Uzkudun Leaburu-Txaramako alkateak.

Afrikar dantzen ikastaroa antolatu dute Asvinenea zentroan**I. Terradillos** Aduna

Asvinenea Adunako arte eszenikoaren laborategiak ikastaro berezia antolatu du urtarrilerako. Afrikar dantzen kurtsoa izango da, hain zuzen ere, eta asteartean emango dute, 19:00etatik 21:00etara.

Ikastaro honetako irakaslea Marie Toure Ginearra izango da, eta zuzeneko perkusio doinuek lagunduta erakutsiko du dantza egiten. Hilabeteko kuota 45 euro ordaindu beharko da, eta bazkide direnek, 40. Izena emateko 691 626 606 (Laida) zenbakira deitu behar da, edo laidall@hotmail.com helbidera idatzi.

Herritarrekin aztertuko dituzte aurrekontuak Areson, etzi

Urteko lehen herri batzarra, 20:00etan izango da, udaletxean, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte

Iñigo Terradillos Areso

2013 urteko lehendabiziko herri batzarra egingo dute Areson, etzi, 20:00etan, udaletxean. Udalak herritarrek deitu ditu bilerara joan daitezen, herriko azken berriak ezagutu ditzaten, aurtengo aurrekontuen berri izan dezaten, eta euren iritzia eman dezaten.

Batek, Espainiako bandera ez jarri izanagatik Aresoko Udalak jaso duen salaketa azaldu dute batzarrean. Bandera jartzeko aginduaren aurrean hartutako

erabakiaren berri orduan emango diete herritarrei. Bestetik, larumbatean, urtarrilaren 12an Bilbon egingo den euskal presoaren aldeko manifestaziora joateko deia egingo du.

Herriko argitegian kontsumo baxuko bonbilak probatuko ditu udalak, eta horren berri ere emango du, eta baita, neguan egin beharreko erreketak, desbroze eta auzolanen inguruan hartutako erabakiez. Administrazio elektronikoa martxan jarri dute udaletxean, eta hori ere azalduko dute batzarrean.

2013ko aurrekontuak

Udalak behin behinean onartuak ditu 2013ko aurrekontuak. Adierazi dutenez, «egoera ekonomikoak behartuta, eta diru laguntzen desagertapenarengatik» ia inber-

tsiorik ez egitera derrigortu dituzte. Bestalde, zergak eta tasak ez igotzea erabaki dute. Diru sarrerak handituko balira bestelako inbertsioak egiteko erabiliko lukete, hala nola, udaletxe gaineko solairua moldatzea eta ondarea berreskuratzea.

Aresok duen proiektu handietako baten berri ere emango diete udaleko arduradunek herritarrei. Herriaren sarreran etxebizitzak eraikitzeko proiektua Nafarroako Gobernuaren aldeko txostenaren zain dago, behin betiko onarpena izan, eta obrak martxan hasteko. Horretarako, etxebizitza horien eskaria frogatzen duen txostena behar du udalak. Etxebizitza horietan interesa duten aresoarrek zein kanpokoek urtarrilaren 15era arte izango dute izena emateko aukera.

Urteko batzarra egingo du igandean, Ibarrako Bizi Nahi elkarteak**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako Bizi Nahi elkarteak zuzendaritzak batzarra deitu ditu bazkideak, igande honetan, hilak 13, 11:00etan lehen deialdian, eta 11:30ean bigarren. Urteko batzarra amaitzean, hamaiketako banatuko zaie bertaraten diren guztiei.

Bestalde, Ibarrako erretirodun eta pentsiodunen elkarteak Benidormera (Herrialde Katalanak) 15 eguneko oporraldia antolatu du, maiatzaren 18tik ekainaren 1era. Bazkideek urtarrilaren 16tik aurrera dute izena emateko aukera, eta bazkide ez direnek, urtarrilaren 18tik aurrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



NORMALTASUNERA ITZULTZEN

Eguberriak bukatu dira, eta familia guztiak bezala kaleak ere normaltasunera itzultzen hasiak dira. Abenduko lehen egunetatik Tolosako kaleak apaindu eta alaitu dituzten argiak eta apaingarriak kentzen ari ziren, atzo, San Frantzisko pasea-

lekuan. Beherapenek hartu diote lekukoa Eguberri, eta Tolosako kaleetako normaltasunak ez du askorik iraungo inauteriak ate joka baitatuz. Hilabete baino gutxiago falta da, berriz ere, Tolosako kaleak kolore alai zantzeko. ENERITZ MAIZ

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurak**

Agenda

HITZALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria-ren hitzaldia izango da, gaur, Subijana etxean, Mintzolan, 19:00etatik aurrera.
■ **Tolosa.** Antxon Bandres Bi-dariaren Txokoan, gaur, 20:00etan, *Saberes Ancestrales de Sucumbios* liburua aurkeztuko dute. Euskaraz izango da. Kepa Fernandez de Larri- noa, Txuri Olo eta Koldo Azku- ne antropologoak, Lera mugarik gabeko antropologoak elkar- teko partaideak, izango dira ber- tan.

IKASTAROAK

■ **Tolosa.** Osasun eta Preben- tzioaren astean harira DYAk ikastaro eta hitzaldiak eskaini- du hilaren 14tik 18ra. Euskaraz eta doan izango dira saio guz- tiak, Tolosako kultur etxean. 19:00etatik 21:00etara izango dira. Izena eman nahi duenak 943 46 46 22 telefono zenbaki- ra deitu beharko du, edota *ira- kaskuntza.eskola@DYAgipuz- koa.com* helbidera idatzi.
■ **Tolosa.** Afrika Menbaldeko dantza ikastaroa izango da, Bonberenean, asteazkenero. Izena emateko bi modu daude: *ainhoaagi@gmail.com* helbi- dera idatziz edo 653 732 709 te- lefono zenbakira deituz. Hileko kuota 30 euroko da, eta Ainhoa izango da irakaslea.
■ **Aduna.** Afrikar dantzen ikas- taroia eskainiko du Adunan da- goen Asvinenea arte eszeniko- en laborategiak, urtarrilean. As- teartero izango da ikastaroa 19:00etatik 21:00etara. Zuzene- ko perkusio doinuek lagun- duta izango da, eta Marie Toure ginearra izango da irakaslea. Hi- labeteko kuota 45 euro izango da, eta bazkideentzat 40 euro. Izena emateko *laidall@hot-*

mail.com helbide elektronikora idatziz edota 691 626 606 (Lai- da) telefono zenbakira deituz egin beharko da.

ERAKUSKETAK

■ **Amasa-Villabona.** Gaurtik hasi eta hilaren 12a bitartean, Berria Komunikazio taldeari la- guntzeko erakusketak egongo da zabalik, Gurea antzokian. 17:00etatik 19:00etara, eta az- ken egunean, 11:00etatik 13:00etara.
■ **Tolosa.** Iraia Okinarenean ilu- strazioak, eta Javier Baldaren eta Nerea Ugarteren lanak ikusgai daude, Aranburu jauregian, hi- laren 26a bitartean.

BESTELAKOAK

■ **Leitza.** Herrirak antolatuta, euskal preso eta iheslarien etxeretzeari eskatzeko Bilbon egiten den urteroko manifesta- ziora joateko autobusak antola- tu dituzte. Txartelak Torrea ta- bernan jarri dituzte salgai, eta erosteko azken eguna hilaren 11a, ostirala izango da. Autobu- sak 15:00etan aterako dira.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gau- ekoa: Morant, R. Zabalarreta lo- rategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa- nen etairitzien erantzukizunik.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Urdaibaiko biosferaren erdian, baserriko eta itsasoko produktuez gozatzeko aukera.

ALMIKETRU ERRETEGIA
Auzo berrak
BERRIO
SOLIA
Tel. 94 682 19 21
almiketru@mauka.com
www.almiketru.com

28€

www.mauka.eu **berria**